

## **Hiriko 1.456 establezimenduk egin dute bat *Euskaraz barra-barra* egitasmoarekin**

- e// marka duten pegatina gorriak dituzte sarreran itsatsita egitasmoarekin bat egin duten Donostiako 1.456 establezimenduek
- e// ikurraren helburua da bezero euskaldunei adieraztea euskaraz egiteko aukera dutela establezimendu edo gunehorietan
- 2022. urtean jarri zuten martxan egitasmoa Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak. Donostiako Udalak hasieratik parte hartu du egitasmoan eta Donostiak du gaur egun egitasmoratxikitako establezimendu gehien
- Donostian, euskararen hirian, e// ikurra duten establezimenduetan 5.916 langile ari dira jendaurrean, eta horietatik 10etik 9k dute euskaraz ulertzeko gaitasuna.

Merkataritzan eta ostalaritzan euskaraz hitz egiteko guneak identifikatzen dituen Euskal Herri mailako marka da *Euskaraz barra-barra*; establezimenduetako langileen euskara gaitasuna identifikatu eta aitortzen duen marka bateratua. 2022. urtean jarri zuten martxan egitasmoa Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak eta une honetan 150 bat herritan ari dira egitasmoa bultzatzen lekuan lekuko Udalak. Donostiako Udalak hasieratik hartu du parte egitasmoan eta, gaur egun, Euskal Herriko hiri eta herrien aldean, e// markarekin identifikatutako establezimendu gehien biltzen ditu.

*Euskaraz barra-barra* egitasmoak Donostian izan duen harrera onaren berri emateko prentsaurrekoa eman du Donostiako Udaleko Turismoko, Euskarako eta Kulturako zinegotzi Jon Insausti Maisterrenak, hiriko merkataritzako eta ostalaritzako elkarte eta erakundeetako (Gipuzkoako Ostalaritza Elkarte, San Sebastian Shops eta Gipuzkoako Merkatarien Federazioa) ordezkariak lagunduta.

### **Emaitzak auzoka eta sektoreka**

Insausti zinegotziak jakinarazi duenez, lehenengoz 2022ko udazkenean aurkeztu ziren Udalak *Euskaraz barra-barra* egitasmoa aurretik *Hemen ere euskaraz* egitasmoarekin bat eginda zeuden establezimenduei, eta horietatik 1.060 establezimenduk egin zuten bat egitasmoarekin. Orduetik hona beste 396 establezimendu batu dira egitasmorara.

Udaleko Euskara Zerbitzuak 2.701 establezimendu bisitatu ditu denbora tarte honetan eta horietatik %54k (1.456 establezimendu) bat egin dute *Euskaraz barra-barra* egitasmoarekin. Aurtengo udazkenean establezimenduak bisitatzen jarraituko du.



# Prensa Oharra

Auzoka, egitasmora atxikitako establezimendu gehien Grosen (233 establezimendu, guztizkoaren %16) eta Amara Berrin (218 establezimendu, %14,9) daude; eta sektoreka, berriz, merkataritza sektorean (% 53).

## DATUAK AUZOKA/ EREMUKA

AUZOAK	BISITATUTAKO ESTABLEZIMENDUAK	EGITASMOAREKIN BAT EGIN DUTEN ESTABLEZIMENDUAK	% (bat egindakoen auzokako banaketa)	
Aiete		30	19	1,30
Altza-Larratxo		109	47	3,23
Amara		319	168	11,54
Amara Berri		334	218	14,97
Antigua		139	77	5,29
Ategorrieta-Ulia		41	29	1,99
Berio-Ibaeta-Añorga		142	97	6,66
Egia		127	81	5,56
Erdialdea		376	180	12,36
Gros		556	233	16,00
Herrera		77	41	2,82
Intxaurren		82	48	3,30
Loiola-Martutene		90	38	2,61
Parte Zaharra		279	180	12,36
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.701</b>	<b>1.456</b>	<b>100</b>	

## DATUAK SEKTOREKA

JARDUERA	BISITATUTAKO ESTABLEZIMENDUAK	EGITASMOAREKIN BAT EGIN DUTEN ESTABLEZIMENDUAK	% (bat egindakoen auzokako banaketa)
Merkataritza	1.401	772	53,02
Ostalaritza	545	258	17,72
* Gainerakoak	755	426	29,26
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.701</b>	<b>1.456</b>	<b>100</b>

\* Bestelako zerbitzu-establezimenduak: estetika zentroak, dietetika zentroak, botikak, aseguru-etxeak...

Donostian, euskararen hirian, e// ikurra duten establezimenduetan 5.916 langile ari dira jendaurrean, eta horietatik 10etik 9k du euskaraz ulertzeko gaitasuna: 3.885ek (%65,7) euskaraz hitz egiten dute eta 1.325ek (%22,4) euskaraz ongi ulertzen dute, nahiz eta

# Prensa Oharra

ez hitz egin. Hortaz, egitasmoan parte hartzeko ulermenaren baldintza ondo betetzen dute.

Euskara zinegotzi Insaustiren arabera, *“datu horiek erakusten digute Donostian kontsumitzaileok uste duguna baino establezimendu gehiagotan egin dezakegula euskaraz”*. Eta, zentzu horretan, Insaustik herritarrak animatu egin ditu Donostiako saltokietan eta tabernetan euskaraz egitera: *“Egitasmoarekin bat egin duten establezimenduetan bezeroak euskarari eutsi ahal izango dio, nahiz eta langileak euskaraz erantzun ez. Ulermena bermatuta dago eta establezimendu horietako bezeroek euskaraz lasai ari daitezkeela adierazten du markak”*.

Bestalde, establezimenduek ere izango dute onurarik, bezero euskaldunei zerbitzu hobea eskainiko baitiete. Izan ere, kontuan hartu behar da Donostiako establezimenduetako bezero gehienak gipuzkoarrak direla, donostiarrak barne.

Gainera, erakunde pribatuen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila aitortzeko sistemaren barruan sartu du e// ikurra Eusko Jaurlaritzak eta, horri esker, *Euskaraz barra-barra* egitasmoarekin bat eginda dauden establezimenduek Eusko Jaurlaritzaren MEC dirulaguntza deialdian laguntza handiagoa eskura dezakete.

## **Egitasmoan parte hartzeko baldintzak**

Donostiako establezimendu batek egitasmoan parte hartzeko bi baldintza bete behar ditu: lehena da jendaurreko langileek euskaraz ulertzea. Hala, 2 eta 10 langile arteko establezimenduetan, gutxienez langileen erdiek (%50) ulertu behar dute euskaraz, une oro; eta 11 langiletik gorako establezimenduetan, berriz, gutxienez langileen % 30ek ulertu behar du, une oro. Eta bete beharreko bigarren baldintza da bezeroari lehen hitza euskaraz egitea.

## **5.000 telazko poltsa bezero euskaldunen artean banatzeko**

Egitasmoari ikusgarritasuna emateko asmoz e// ikurra duten telazko 5.000 poltsa banatuko ditu Udalak atxikitako establezimenduen artean, bezero euskaldunei opari edo sari gisa emateko. Ekainaren bigarren hamabostaldian egingo da banaketa alde zuzenetik eskaera egin duten establezimenduetan. Eskaera egiteko hiru asteko epea izango dute: maiatzaren 27tik ekainaren 14ra.

Donostian, 2024ko maiatzaren 27an